


Fakultateko kontsumoaren hiru hileko datuak (2015)

PAPERAREN KONTSUMOA (Atezaintza, Idazkaritza eta Dekanotza)

URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA
46.500 unitate	20.500 unitate	35.000 unitate

Hona azken hiru hiletan izandako paper kontsumoa (orri kopurua):



Urteko lehenengo hiru hilekoan iazkoan baino paper gehiago erabili da. Aldea ez da handia, baina, esan bezala, nabari da urtarrilean paper gehiago kontsumitu dela. Guztira, 46.500 orri erabili dira urtarrilean. Izan ere, hilabete horretan paper kontsumoa handiagoa izaten da, bigarren lauhilekoa hasten dela eta (lauhileko berriko lan materiala banatzen da).


KARTUTXOAK/TONERRA (Atezaintza, Idazkaritza eta Dekanotza)

	2015eko LEHEN HIRUHILEKOA
Inprimagailuetako kartutxoak	13 unitate
Funtzio anitzeko fotokopiagailuen tonerra	0 unitate

Inprimagailuetako 13 kartutxo agortu eta funtzio anitzeko fotokopiagailuen tonerra ez dugu aldatu behar izan.

PAPER BIRZIKLATUA (Fakultatea)

Beotibar Recycling S.L. enpresak, Bizkaiko Campuseko edukiontzi urdinetara botatzen den papera birziklatzeaz arduratzen denak, gure fakultatean jasotako paper kilogramoen berri eman digu. Hona azken sei hilabetetan izandako bilakaera:



Otsailean jaso da birziklatzeko paper gehien, 840 kg., guztira. Urtarrila fakultatean azterketak egiteko sasoia delarik, ikasgeletako eskolak asko gutxitu eta, ondorioz, hondakin gutxiago sortu eta paper gutxiago birziklatzen da.

ONTZIAK/PLASTIKOA (Fakultatea)

URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA
55 kg	86 kg	106 kg

Kg = kilogramoak (litro 1 paper = 0.32 kg eta litro bat plastiko 0,05 kg)

Birziklatzeko paperarekin gertatu bezala, urtarrilean fakultatean jarduera gutxiago izan denez, azterketak egiteko saioa delako, plastikozko ontziak birziklatzeko maila baxua da horren isla.

Planetaren ordua 2015

Martxoaren 28an, orduaren aldaketa izan zen egun berean, **Planetaren Ordua** ospatu zen 20:30etik 21:30era.

Planetaren Ordua ekitaldi sinboliko bat da, itzalaldi elektriko bat gertatzea helburu duena. Hau da, etxe eta enpresei ordubetez argiak eta beste tresna elektriko batzuk itzaltzeko eskatzen zaie. Ekimen horren bitartez gizartea kontzientziatu nahi da klima aldaketaren kontra, energia aurreztu eta argi kutsadura gutxitzeko neurriak hartzeko.

Egun, Planetaren Ordua dugu klima aldaketaren aurka mobilizatu eta borrokatzeko kanpaina global handiena. WWF gobernuz kanpoko erakunde ekologiazaleak antolaturik, ekimen hau Sidneyn sortu zen 2007an eta, harrez gero, lortu du 160 herrialdetako 7.000 hirik eta herrik baino gehiagok parte hartzea, milaka enpresak, heziketa zentroek eta erakundeek. Horiek denek beren ahotsa batzen dute energia garbietan oinarritutako etorkizuna lortzerik badagoela erakusteko.

2015eko deialdiak garrantzi berezia izan du, aipatutako helburuez gainera, Parisen abenduan egingo den bilera ere kontuan hartu baita. Izan ere, elkarretaratze horretan klimari buruzko akordio berri bat lortu nahi baita, Kiotokoaren ordezkia, alegia. **Parte hartu al zenuen Planetaren Orduan?**



Aztarna Ekologikoa eta Energia Elektrikoa

Iragarrita zegoen bezala, otsailaren 26an, hitzaldi bat eman zuen Jon Urretxa ingurumen hezitzaileak fakultateko éntzunaretoan. Fakultatean zein gure etxeetan kontsumo elektrikoa murrizteko aholku interesgarriak eman zituen. Eta, bestalde, luze eta zabal mintzatu zen aztarna ekologikoaren gainean.

Aztarna ekologikoa adierazle bat da, eta berorren bitartez ebaluatzen da bizimodu jakin batek planetan zenbateko eragina duen eta planetaren biogaitasunarekin alderatzen da. Honela definitzen da aztarna ekologikoa: “Bizi maila espezifiko duen populazio jakin batek erabilitako baliabideak ekoizteko eta sortutako hondakinak asimilatzeke ekologikoki produktiboa den behar duen lurralde eremua, eremu hori nonahi dagoelarik”. Neurria hainbat eskalatan egin daiteke: banakoa (pertsona baten aztarna ekologikoa), populazioak (hiri, erlijio, herrialde eta abarren aztarna ekologikoa), komunitateak (nekazal gizarte, industria gizarte eta abarren aztarna ekologikoa). Bestela esanda, aztarna ekologikoa ondokoen batuketaren emaitza da, hau da, gizateriak eskatzen dituen, eta lehian aritzen diren, ondasun eta zerbitzu ekologikoen batuketarena. Laborantzarako biologikoki produktiboa den lurra (edo biogaitasuna) sartzen da, artzaintza, lurzoru urbanizatua, arrantza guneak eta baso produktiboak. Era berean, ozeanoek xurgatzen ez duten karbono dioxidoaren isuri gehigarriak xurgatzeko behar den baso eremua ere sartzen da.



Hitzaldia

Ba al zenekien...?

Badira anitz webgune Interneten pertsona batek sortzen duen aztarna ekologikoa kalkulatzeko . Ba al dakizu zein den zure aztarna ekologikoa? Hona hemen tresna bat hori kalkulatzeko: <http://www.tuhuellaecologica.org/>



Egiten diren kalkuluen arabera, munduko populazioaren aztarna ekologikoa 1,5 planetaren baliokidea litzateke. Hau da, gizakiok urtebetean gastatzen ditugu Lurreko baliabideak, horiek berreskuratzen kostatzen den denbora baino azkarrago, alegia. Bestela esanda, Lurra eman ahal duen baino gehiago gastatzen ari gara.

Azken 50 urteetan, populazioak naturari egindako presioak planetak birsortzeko duen gaitasuna gainditu du.

Global Footprint Network munduko erakundeak jasotzen duenez, ondokoa da nazioen aztarna ekologikoa:

http://www.footprintnetwork.org/es/index.php/GFN/page/footprint_for_nations/

Eta... zer egin dezaket nik?

Zure aztarna ekologikoa gutxitu ahal duzu neurri hauen bitartez:

Mugikortasun iraunkorra

Distantzia handiko ibilbideetarako garraio publikoa erabiliz gero, karbono aztarna gutxituko dugu, errepideetako auto kopurua murriztu eta auto ilarak saihesteaz gainera.

Bizikleta erabili. Izan ere, ia-ia ez duzu aztarna ekologikorik sortzen eta aztura osasuntsua da.

Berrantolatu zure etxea: laguntzarik behar ez izan eta energetikoki eraginkorra izateko

Berokuntza eta trena elektrikoek energia kontsumitzen dute, eta ekoizpen energetikoak berotegi efektuko gasen emisioak sortzen ditu. Hortaz, gure kontsumoa murriztuz gero, gure aztarna ekologikoa eta gure fakturen zenbatekoa gutxiagotuko ditugu. Gogoan izan energia berriztagarriak erabiltzeko aukera. «Energia berdea» kontratuz.

Elikagaien aztarna ekologikoa gutxitu Inportatutako produktuen kontsumoak eta produktuen gehiegizko ontziratzeak izugarrizko ingurumen inpaktua eragin eta berotegi efektuko gasen kantitate handiak eta produktu toxikoak isurtzen dituzte.

Tokian tokiko produktuak erosi.

Ur kontsumoa murriztu

Hondakin gutxiago sortu

Besteak beste, neurri hauek hartu ahal dira: produktu iraunkorragoak erosi, saihestu «erabili eta bota» gisako produktuak edo enbalaje gutxiago duten produktuak erosi.

Datu iturriak:

- ✂ <http://www.facua.org/es/guia.php?Id=105&capitulo=887>
- ✂ <http://www.footprintnetwork.org/en/index.php/GFN/>
- ✂ <http://www.wwf.es/>
- ✂ <http://www.bizkaia21.net/>
- ✂ <http://www.euskadi.eus/>



Hemen proposatutako ideia bat gauzatu nahi baduzu eta ez badakizu nola egin, edo iradokizun, ideia edo proposamenen bat baldin badaukazu, jar zaitez gurekin harremanetan honako helbide elektroniko honetara zuzenduta:

gkz.ekoscan@ehu.es

Mesedez ez inprimatu aldizkari hau, espresuki pantailan ikusteko eginda dago. Aurrez dezagun toner/tinta eta papera!